

## **2015ERA LUZATUTAKO 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA  
**Programa:** 63 NATURAREN ETA NATURGUNEEN  
MANTENTZEA

## **LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO 2014 PRORROGADO PARA 2015**

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO  
**Programa:** 63 CONSERVACIÓN NATURALEZA  
Y ESPACIOS NATURALES

### **SAILAREN MEMORIA**

### **MEMORIA DEL DEPARTAMENTO**

#### **I. MEMORIA**

Ingurumen eta Biodiversitate Zerbitzuak, biodiversitatea zaintzeko zeregin duenez, arreta berezia jartzen die fauna eta flora espezieei, bereziki, mehatxatuei. Horrez gain, zerbitzu hau arduratzan da babestutako biotopoak, Natura 2000 Sareko babes bereziko zonak eta nazioarteko garrantzia duten Ramsar hezeguneak kudeatzeaz, eta habitat naturalak zaintzeaz, egokitzeaz eta lehengoratzeaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Baterako Erakundeek beren gain hartutako eskumenen ondorioz.

Natur habitatak eta basa flora eta fauna kontserbatzeko 92/43/CEE Zuzentaraua eta Hegazti basatiak kontserbatzeari buruzko 2009/147/EE zuzentaraua aplikatu eta haien jarraipena egitea da zerbitzu honen beste lan ildo lehentasunezko bat.

Hala, hori delarik esparrua, Arabako Foru Aldundiaren egitekoa da espezie mehatxatu, zaurgarri edo galzorian daudenak zaintzeko jarduera eta kudeatze planak abian jartza eta horien jarraipena egitea, eta kasu egitea, orobat, kalte fisikoren bat pairatu duten animaliak osatu eta berriz ere naturan sartzeko, Martiodako Suspertegiaren bitartez.

Zerbitzu honek betetzen duen beste zeregin bat da gure natur ondareko landaretza eta faunaren aberastasuna zabaltzea, hitzaldi, argitalpen, ibilaldi eta bisita gidatuen bitartez.

Ingurumen eta Biodiversitate Zerbitzuak ingurumen arloan dituen beste zeregin batzuk dira hiri inguruneko sailkatutako jarduerak eta indarrean dagoen legeriaren arabera ingurumenean eragina duten jarduerak kontrolatzeko tresnak martxan jartza.

Zerbitzuaren jarduera esparruak beste arlo bat ere hartzen du barnean: plan, programa eta proiectuen ingurumenaren gainekeo eragina ebaluatu eta

#### **I. MEMORIA**

El Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad procura, en su faceta de conservación de la biodiversidad, la atención a las especies de fauna y flora, preferentemente a las amenazadas, la gestión de los Biotopos Protegidos, Zonas de Especial Conservación de la Red Natura 2000 y Humedales Ramsar de Importancia Internacional, así como al cuidado, acondicionamiento y restauración de los hábitats naturales, como función derivada de las atribuciones asumidas por las Instituciones Comunes del País Vasco.

La aplicación y seguimiento de las Directivas 92/43/CEE de Conservación de los Hábitats Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres y la 2009/147/CE relativa a la Conservación de las Aves Silvestres es otra de las líneas preferentes de trabajo del Servicio.

En este contexto, la puesta en marcha y seguimiento de planes de actuación y gestión de especies amenazadas, vulnerables o en peligro de extinción forma parte de los cometidos que realiza la Diputación Foral de Alava, atendiendo también al restablecimiento y reintroducción en la Naturaleza de los componentes de la fauna que han sufrido percance físico, a través del Centro de Recuperación de la Fauna Silvestre de Martioda.

La divulgación de la riqueza florística y faunística de nuestro patrimonio natural es una importante labor difusora realizada por el mismo Servicio, por medio de conferencias, publicaciones, itinerarios y recorridos guiados.

Otros cometidos de índole medioambiental del Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad consisten en la puesta en marcha de los instrumentos de control de actividades clasificadas dentro del medio urbano y de las que afecten al medio ambiente según la regulación normativa vigente.

La Evaluación y Corrección de Impacto Ambiental de Planes, Programas y Proyectos, otra de las disciplinas que abarca el ámbito de actuación del Servicio, se

## **2015ERA LUZATUTAKO 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA  
**Programa:** 63 NATURAREN ETA NATURGUNEEN MANTENTZEA

zuzentzea. Hori garrantzi handiko bitarteko da gure lurraldeko ingurumenaren balio eta baliabideak antolatu eta babesteko.

Antzinako meatze guneak eta leku hondatuak leheneratzearren helburua da ingurumen aldetik aldatuta dauden lekuak edo hobetu daitezkeenak ekologiaren nahiz paisaiaren aldetik biziberritzeko jarduerak egitea. Meatzaritzako ustiategi zaharren betetze sekuentzialerako programak aipatu behar dira, esaterako Langraiz Okako "El Torco" harrobi zaharrean egindakoa, eta, beste alde batetik, hondakindegia lurraldeko kontrolgabek zigilatzeko eta leheneratzeko egindako lanak.

Uribarri Ganboako eta Urrunagako urtegien ertzen egokitze ekologikoa ere nabarmentzekoa da. Izan ere, ertzetako habitata babestu, lehengoratu eta hobetzeko jarduerak egin dira. Horri guztiari esker, ur azal horien balioa areagotu egingo da. Gainera, gune hori Zadorra ibaieren natura, ingurumen eta paisaia orekarako giltzarria da. Nabarmentzekoak dira gisa horretako ekintzen artean Legutioko araztegi zaharra eraistea eta Urrunagako urtegiaren inguru erasana lehengoratzea, eta, orobat, Uribarri Ganboako urtegiaren isatsetako Ramsar hezegunean paisaia eta ekologia hobetze aldera egindako sendotze-ekintzak eta landaredia ezartzeko ekintzak.

Nabarmentzekoak dira, orobat, Caicedo Yusoko aintzira hori Ramsar hezegune nazioarteko garrantziduna izaki, bai eta Natura 2000 Sareko Europar Batasunaren Intereseko Lekua ere, aintziraren inguruko habitatak leheneratzeko eta hobetzeko egindako ekintzak, zeinak Europar Batasunak finantzatutako Life "Tremedal" izeneko proiektuaren barruan egin baitira.

Ingurumena leheneratzeko beste jardun batzuk ibai korridoreetan egin dira, hala nola La Muera ibaian, hain zuzen ere, Gesaltza Añanako Gatz Haranaren Ramsar hezegune nazioarteko garrantzidunetik igarotzen den lekuan, bai eta Zadorra eta Ebro ibaietako Europar Batasunaren Intereseko Lekuen ertzetan ere.

Aisialdirako eremu publikoak egokituz Arabako ingurumenaren baliabideez gozatzea bultzatzen da,

## **LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO 2014 PRORROGADO PARA 2015**

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO  
**Programa:** 63 CONSERVACIÓN NATURALEZA Y ESPACIOS NATURALES

configura como una herramienta de gran importancia en la ordenación y protección de los valores y recursos ambientales de nuestro territorio.

La restauración de antiguos espacios mineros y áreas degradadas tiene como objetivo la realización de actuaciones encaminadas a la recuperación ecológica y paisajística en áreas alteradas medioambientalmente, o susceptibles de mejora. Destacan los programas de relleno secuencial en antiguas explotaciones mineras, como el que se encuentra en desarrollo en la antigua cantera de "El Torco", en Nanclares de la Oca, junto con las actuaciones llevadas a cabo para sellado y rehabilitación ambiental en escombreras y zonas de vertido incontrolado de la provincia.

La adecuación ecológica de las márgenes de los Embalses de Ullíbarri Gamboa y Urrunaga, con la ejecución de trabajos para la protección, restauración y mejora de los hábitats ribereños son acciones destacadas en la puesta en valor de esas láminas de agua, pieza esencial en el equilibrio natural, ambiental y paisajístico del sistema fluvial del Zadorra. Destacar en esta línea de acción los trabajos de demolición de la antigua depuradora de Legutiano y restauración del entorno ribereño afectado en el Embalse de Urrunaga y las intervenciones de refuerzo e implantación vegetal para mejora ecológico-paisajística en el Humedal Ramsar de las colas del Embalse de Ullíbarri-Gamboa.

Han de destacarse asimismo las actuaciones desarrolladas para restauración y mejora de hábitats en el entorno del Lago de Caicedo-Yuso, Humedal Ramsar de Importancia Internacional y Lugar de Interés Comunitario de la Red Natura 2000, en el marco del Proyecto Life "Tremedal" financiado por la Unión Europea.

Otras actuaciones de restauración ambiental han sido llevadas a cabo en corredores fluviales, concretamente en el río La Muera, a su paso por el Humedal Ramsar de Importancia Internacional del Valle Salado de Salinas de Añana, así como en las riberas de los Lugares de Interés Comunitario de los ríos Zadorra y Ebro.

El acondicionamiento de espacios públicos para el uso recreativo potencia el disfrute de los recursos

## **2015ERA LUZATUTAKO 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA  
**Programa:** 63 NATURAREN ETA NATURGUNEEN MANTENTZEA

batez ere paisaiak dituen horietaz. Arabako Lurralde Historikoko Parke probintzialak eta Korridore Berdeen Sarea gero eta gehiago erabiltzeak erakusten du programak zer-nolako arreta jartzen dien. Sail horretan, hain zuzen, nabarmendu behar dira Ibilbide Berdeen Sarean zati hau eta bestea hobetzeko egokitzearen eta hobetzearen egindako esku hartzeak; zehazki, Vasco-Navarro trenbide zaharreko ibilbide berdean, Uribarri Ganboako urtegiko ibilbide berdeetan eta Guardiako urmaelen biotopoetan.

Azkenik, nabarmendu behar da Nerbioiko Parke Linealaren eremuan ibilbide berdea egokitu eta ingurunea leheneratzeko jardueren jarraipena.

### **II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA**

Ondoren programaren helburu bakoitzari esleitu zitzaison zenbakaren arabera azalduko dugu helburu horren gauzatze maila.

#### **1. Espezieen biodibertsitatearen Espezieen biodibertsitatearen baliabideak mantendu eta babestea.**

Aurreratu egin da habitat bereziak zaintzeko lanetan eta hezeguneetako eta ibai korridoreetako biodibertsitatearen gaineko zenbait azterlanetan.

Mehatxutako espezieen kudeaketa planen gaineko txostenak idatzi ziren, bai eta lurralteko antolamenduko zenbait jardun gauzatu ere, espezieen eta intereseko lekuak habitatari erasaten zioten heinean.

2015 urtean hainbat fauna espezie hartu eta zaindu dira Martiodako Suspertegiko instalazioetan; horrez gainera, ikerketa zientifikoetan laguntzeko eta haien zabaltzeko lanak egin dira.

Era berean, espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko ekintzak gauzatu dira, hala nola amerikar bisoia, Asiako liztorra, zebra muskuilua, Floridakapoarmatuak, bai eta flora kontrolatzekoak ere (Pampako luma-mottoa).

## **LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO 2014 PRORROGADO PARA 2015**

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO  
**Programa:** 63 CONSERVACIÓN NATURALEZA Y ESPACIOS NATURALES

ambientales, particularmente paisajísticos, de Alava. La utilización creciente de los Parques Provinciales y de la Red de Itinerarios Verdes del Territorio Histórico de Álava es reflejo de la atención que a los mismos se presta en el Programa. Dentro de esa línea cabe destacar las intervenciones de mejora llevadas a cabo en diversos tramos de la Red de Itinerarios Verdes en orden a su adecuación y mejora; en particular en la Vía Verde del antiguo Ferrocarril Vasco-Navarro y Rutas Verdes del Embalse de Ullíbarri-Gamboa y Biotopo de las Lagunas de Laguardia.

Finalmente ha de destacarse la continuidad de las actuaciones de acondicionamiento de la Vía Verde y restauración del entorno llevadas a cabo en el ámbito del Parque Lineal del Nervión.

### **II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS**

A continuación exponemos el correspondiente grado de cumplimiento en función del número que se le asignó a cada objetivo del Programa.

#### **1. Mantenimiento y protección de los recursos de la biodiversidad de las especies.**

Se ha continuado desarrollando las líneas de trabajo relativas al seguimiento de los hábitats singulares y varios estudios sobre la biodiversidad de Humedales y Corredores Fluviales

Se redactaron informes sobre planes de gestión de especies amenazadas y actuaciones de planificación territorial en relación con su afección al hábitat de las especies y lugares de interés.

En las instalaciones del Centro de Recuperación de Fauna Silvestre de Martioda se han producido ingresos de especies faunísticas que han sido atendidos a lo largo de 2015 y labores de divulgación y apoyo a investigaciones científicas.

Se han desarrollado asimismo acciones de control sobre especies exóticas invasoras, en concreto sobre el visón americano, avispa asiática, mejillón cebra, galápagos de Florida y flora (Plumero de la Pampa).

## **2015ERA LUZATUTAKO 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA  
**Programa:** 63 NATURAREN ETA NATURGUNEEN  
MANTENTZEA

### **2. Fauna eta florako espezieen eta sistema naturalen azterlana, ezagutza eta zabaltzea.**

Jarraitu egin da mehatxatutako animalia eta landare espezieen inventarioak egiteko eta haien kontserbazio egoeraren jarraipena egiteko hainbat azterlanekin. Alde horretatik, aipatzeko da honako hauen jarraipena: harrapari komunitateen inventarioak prestatzeko lurraldeko hainbat gunetan egindako lanak, eta anfibioak eta haien ugalketa eremuak eta mirozta eta sai arreen populazioak aztertzeko lanak, eta orobat Bonelli arranoa, europar bisoia, ibai kabuxa eta mazkar arantzaduna zaindu eta kontrolatzeko ekintzak, espezie horientzat onartutako kudeaketa planen eremuaren barruan. Azterlanak, inventarioak eta haien habitata eta populazio egoerak kontrolatzeko eta zaintzeko hainbat ekintza gauzatu dira.

Halaber, lan esparru horretan otsoak (banaketa areak, populazioaren estimazioa) aztertzeko eta jarraipena egiteko garatu diren jarduerak gailendu behar dira. Jarduerok ekitaldian zehar burutu dira.

Ingurumen eta Hirigintza Sailak parte hartzen jarraitzen du Bonelli arranoa eta europar bisoia kontserbatzeko europar LIFE proiektu bitan, espezie aleak zaindu, haien populazioa areagotu eta mehatxuak ezabatzeko diharduten administrazio publikoetako beste bazkide batzuekin batera.

### **3. Ingurumenaren eta paisaiaren kalitatea hobetzea eta babestea.**

Hondakindegia kontrolgabeak leheneratu dira, eta kontrolgabeko isurketa tokiak garbitu eta deuseztatu dira probintzian.

Aurrera jarraitu dute 2015. urtean zehar Langraiz Okako "El Torco" harrobi zaharreko ingurumena eta paisai leheneratzeko betetze sekuentzialeko lanek.

Ekologia eta paisai leheneratzeko ekintzak eta habitat naturalak hobetzekoak lurraldeko hezegune eta ibaietako ertzetan egin dira lehenik, eta Zadorrako urtegietan ere hainbat ekintza eta lan gauzatu dira: Uribarri Ganboa eta Urrunaga, Izkiko Natur Parkeko Karrantzan urtegi zaharraren inguru, Natura 2000 Sareko ibaiertzak eta Nerbiokiko ibai

## **LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO 2014 PRORROGADO PARA 2015**

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO  
**Programa:** 63 CONSERVACIÓN NATURALEZA  
Y ESPACIOS NATURALES

### **2. Estudio, conocimiento y divulgación de las especies de fauna y flora y los sistemas naturales.**

Se ha continuado con diversos estudios para inventariación y seguimiento del estado de conservación de las especies de fauna y flora amenazadas. Destacar a este respecto la continuidad en los trabajos de inventariación de las comunidades de rapaces realizadas en diversas áreas de nuestro territorio, los estudios de las poblaciones de Anfibios y sus áreas reproductivas, Aguiluchos y Buitre Leonado, y las actuaciones de seguimiento y control de las especies de AgUILA PERDICERA, Visón Europeo, Blenio de Río y Lamprehuela en el marco de los Planes de Gestión aprobados para dichas especies. Se han realizado estudios, inventarios y acciones diversas para control y seguimiento de sus hábitats y estado de sus poblaciones.

Destacar también en este área de trabajo las actuaciones de estudio y seguimiento de la especie lobo (área de distribución, estimas poblacionales, etc.) desarrollados a lo largo del ejercicio.

El Departamento de Medio ambiente y Urbanismo sigue participando en dos proyectos LIFE europeos de conservación del Águila de Bonelli y del Visón europeo con otros socios de administraciones públicas que desarrollan acciones de seguimiento, refuerzo poblacional y eliminación de amenazas.

### **3. Mejora y protección de la calidad ambiental y del paisaje.**

Se ha procedido a la restauración de escombreras incontroladas de residuos, así como la limpieza y eliminación de puntos de vertido incontrolado en la provincia.

Los trabajos de relleno secuencial para restauración ambiental y paisajística de la antigua cantera de "El Torco" en Nanclares de la Oca han continuado a lo largo de 2015.

Las actuaciones de restauración ecológico-paisajística y mejora de los hábitats naturales han tenido como escenario preferente las riberas de los ríos y los Humedales del Territorio, desarrollándose diversas acciones y trabajos en los Embalses del Zadorra: Ullíbarri-Gamboa y Urrunaga, entorno de la antigua Presa de Karrantza en el Parque Natural

## **2015ERA LUZATUTAKO 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA  
**Programa:** 63 NATURAREN ETA NATURGUNEEN MANTENTZEA

korridorea.

Kantaurialdeko zohikaztegiak leheneratzeko LIFE TREMEDAL proiektuan parte hartu da, eta horren barruan ari da gauzatzen Caicedo-Yusoko edo Arreoko aintziraren ingurumenaren leheneratzea ere. Era berean, Gatz Haranaren ingurumena kontserbatzen ere elkarlana ari da gauzatzen, gatz meategietako jarduera eta arkitektura oneratzeko lanekiko koordinazioan.

Ingurumen zabalkunde eta babeseko jarduerak arreta ugari eskatu dituzte, eta nabarmentzekoak dira urtegi isatsetako Ramsar hezeguneetan, Garaioko parkean eta Mendixurko hegazti parkean gauzatutakoak.

Planen, programen eta proiektuen ingurumen impaktuak ebaluatzeari eta zuzentzeari dagokionez, hainbat txosten egin dira, 2015. urtean.

### **DIRU SARRERAK**

2015eko ekitaldian, honako diru sarrera hauek jaso dira:

LIFE Arreoko Aintzirako Habitatak-Tremedal proiektua, 120.766,80 euroko zenbatekoaz.

Zehapen espedienteak izapidetu dira, hain zuzen, 2015eko ekitaldian natura zaintzearen aurkako arau hausteengatik –zenbatekoa: 14.724,42 euro–.

Parkeetan egindako salmentatik lortutako beste diru sarrera batzuei dagokienez, 2015ean 3.482,00 euro lortu dira.

“La Caixa”rekin naturgune babestuak zaintzeko sinatutako hitzarmenaren ondorioz 2015eko ekitaldian 50.000,00 euroko diru sarrerak aitortu dira.

Necopyr programa dela-eta EGEF funtsetatik jasotako diru sarrerez den bezainbatean, 2015ean 32.983,55 euroko zenbatekoa duten funtsak jaso dira.

## **LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO 2014 PRORROGADO PARA 2015**

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO  
**Programa:** 63 CONSERVACIÓN NATURALEZA Y ESPACIOS NATURALES

de Izki, riberas fluviales de la Red Natura 2000, así como en el corredor fluvial del Nervión.

También se participa en un proyecto LIFE TREMEDAL de recuperación de turberas cantábricas, en el que se está abordando la restauración ambiental del lago de Ceicedo-Yuso o Arreo. Asimismo se colabora en la conservación ambiental del Valle Salado en coordinación con la recuperación de la actividad y arquitectura salinera.

Las actividades de divulgación y protección medioambiental han implicado múltiples atenciones, destacando las desarrolladas en el Humedal Ramsar de las Colas del Embalse, Parque de Garaio y Parque Ornitológico de Mendixur.

En materia de Evaluación y Corrección de Impacto Ambiental de Planes, Programas y Proyectos, se han emitido numerosos informes a lo largo del año 2015.

### **INGRESOS**

En el ejercicio 2015 se han recibido los siguientes ingresos:

Proyecto LIFE Hábitats Lago de Arreo-Tremedal por importe de 120.766,80€

Se han tramitado expedientes sancionadores por infracciones a la conservación de la Naturaleza en el ejercicio 2015, imponiendo sanciones por importe de 14.724,42€

Respecto a otros ingresos por ventas en los parques se han obtenido ingresos en 2015 por importe de 3.482,00€

Derivado del convenio con “La Caixa”, correspondiente a la conservación de espacios naturales protegidos, se han reconocido ingresos por 50.000,00€ correspondientes al ejercicio 2015.

Respecto a los ingresos de fondos Feder por el programa Necopyr se han recibido fondos en 2015 por importe de 32.983,55€